

alchatu lurretik,
 eiztariren bati len
 galduba zorrotik,
 eta bere arekin
 zerura begira
 jarririk, zion flecha
 zeruari tira,
 bañan non joko zuben
 zanean erori
 kaskezurretik sartu
 zitzaion berari.

.

Onek erakusten du
 oso andiyari,
 gaitz egin naian obe
 baitala ez ari;
 zeren non mengatuko
 dion ustez ari,
 menga leikiokela
 bere burubari.

DAMA ETA LOREAK

Ainbesterañon dama
 zan gustatzen lorez,
 beren usaiz ta beren
 grazizko kolorez,
 goizero jechirikan
 sarjiñ ederrera,
 an izaten baitzuben
 gozozteko era.
 Gisa onetan zala
 egun goiz batean,
 lore sortachoakin

echeko atean
sartzen zala, musu ta
musu arras gozo,
ezpain politak erre
ziozkan ark oso;
lorearen tartean
zalako osiña,
eta ziolako ark
eman ala miña
segiran sortachoa
botarik lurrera,
errabiz anka pean
pasa zuben bera.

.

Gaiztoa sartzen bada
onaren tartean,
lan bera gertatuko
da ónen kaltean;
kontu bera guchitan
ez baita gertatzen,
maiz du onak gaiztoa
gatischen pagatzen.

RAMON ARTOLA.

